

Sexua lehertzera

Sexu topaketak geure bizitzen hirugarren aroan

Maite Garrido Courel

Adinik ez da zeinarekin sexu jarduerak, sexuari buruzko pentsamenduak, amets erotikoak zein desira amaitzen diren. Bultzada sexualak gure bizitzaren parte dira, elikatzea zein komunerako joatea haren parte diren bezala; gizakiak berezkoa duen zerbait da. Alabaina, bada halako ezjakintasun bat gai honen inguruan gaizki-ulertzei bide ematen diena. Egia esate aldera,

berrogei urte beteta bizitzaren onenera iritsia bazara, behin laurogei eginda gorenko epean zaude.

Adituen arabera, hirugarrena deitu ohi dena dugu sexu gozamenik handien eskaintzen duen etapa, baina, aldi berean, gizartea gehien erreprimitzen duen adin aldia da. Gizarteak gizakion psikean garatu dituen aurreritzien kontra, zahartzaroan sexu harremanak gorenera iristen dira.

Zahartzaroan ardurarik ez da, ezta seme-alabarik zein ilobarik ere. Bizit-

tzen jarraitzea da kontua, hori bai, alaitasunez. Tamalez, gauzak ez dira diruditen bezain errazak; ezjakintasuna eta presio soziala direla eta, zahartzaroan diren eta sexu desira handia duten gizon-emakumeak errudun eta lotsatuta sentitzen dira. Adineko gizon-emakumeak beren gorputzetatik aldentzen dira beraienak izango ez balira bezala. Badirudi gizarteak ezarria duela zahartzaroan, hartzaroan bezala, sexualitateak baztertu beharreko zerbait dela, existitzen ez den zerbait bailitzan, adinekoak haragikeria sentitzeko gai ez diren sexu bakoizakiak bailiran.

Horrek, baina, errealitatearekin zerikusi gutxi dauka. Gainera, orain urruneko zerbait iruditu ahal zaiguna errealitate bihurtuko zaigu goiz ala beranduago, denoi, salbuespenik gabe. Denbora kontua besterik ez da.

Duela mende bete eskas Europako bizi esperantza hogeita hamar urte artekoa zen, baina azken urteetako iraultza zientifikorik handiena aipatu bizi esperantzaren zabalpena izan da, une honetan laugarren aroa izenda genezakeena iristeraino hain zuzen. Beraz, sexualitateak eskaintzen dituen plazerez gozatzeko zenbat eta denbora

gehiago eduki, orduan eta zorientasun handiagoz prestatuko ditugu geure buruak heriotzerako.

“Sexua osasuna da”. Iragarriki batetik aterata dirudien lelo hori geure osasunaren oinarrietako bat da, are gehiago zahartzaroaz ari garenean. Bizitza kalitatearekin bat dator, eta bizitzen jarraitzeko gogoak pizten ditu, baita odol zirkulazioa hobetu zein nerbio sistema indartu ere. Izan badira hogeitau urte genituen bezala sexu basatia edukitzen eragozten duten aldaketa fisiologikoak. Emakumeen kasuan, baginako paretetik lehortasun handiagoa agertzen dute, eta gizonezkoengan erektzioa erraz gertatzen da baina gutxiago irauten du. Dena den, bizitza honetan orok du konponbideren bat eta aipatu kasuetan ere hala da. Ez gara Viagra bezalako sustantzia kimikoez ari, baizik eta tratamendu naturalagoez, zeren horrelakoak egon baitaude. Hala ere, eta gaztaroan kontrakoa ematen duen arren, sexuan dena ez da koitua. Neurrigabeko pasioak samurtasunari eta lasaitasunari egiten die bide, eta patxada horrek gozamen una luza dezake.

Agian orain bestela ikusiko ditugu penintsulako geografian zehar bidaiatzen aritzen diren adineko gizon-emakumeak, eta agure/atso lizunaren kontzeptua geure buruetatik uxatu. Sexu desira hil arteraino irauten duela jakinda, akaso heriotzan pentsatzea goxoago gertatuko zaigu orain. **F**

